

The Otolith Group. O Horizontea

- Datak: 2022ko ekainaren 23etik urriaren 2ra
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2022ko ekainaren 23tik urriaren 2ra, Guggenheim Bilbao Museoak *The Otolith Group: O Horizontea* izango du ikusgai, urteko bigarren erakusketa Film & Video aretoan. Museoak bideo-artearen, ikus-entzunezko instalazioaren eta mugimendudun irudiaren funtsezko piezak aurkezten ditu areto horretan.

Oraingo hau anbizio handiko ikus-entzunezko instalazioa da, Anjalika Sagar eta Kodwo Eshun artistena. The Otolith Group osatzen dute biek: antropozenoa, afrofuturismoa, teoria kritikoa eta zientzia fikzioa interpretatzeko duen modu bereziagatik nabarmendu eta arte garaikidean eta saiakera filmikoaren eboluzioan funtsezko erreferentzetat hartzen den taldea. Literaturako Nobel Saridun Rabindranath Tagorek 1921ean Santiniketanen (Mendebaldeko Bengala, India) sortu zuen Visva Bharati eskolan oinarritzen da 2018ko *O Horizontea (O Horizon)* filma. Obrak naturari eta planeta zaintzearen premia biziari buruz hausnartzera gonbidatzen du. Tagore autore unibertsalista, hezitzailea eta erreformista soziala zen, eta India independentziarantz eta eraldaketa kulturalerantz gidatzeaz gain, gure orainaldi globalizatuaren gakoetako batzuk aurreratu zituen, besteak beste, ingurumenaren zaintza, erradikaltasun nazionalisten mehatxua eta kontserbazioaren aldeko belaunaldi arteko transmisioaren garrantzia.

Erakusketaren muina den *O Horizontea* piezak Visva Bharati eskolako eguneroko bizitza erakusten digu bertan egiten diren dantza, entsegu eta erritualak, barnealdean eta aire zabalean ematen diren eskolak, kutsu mistikoa duten abestiak, hizketaldi eta jolasak, eta animalien begiradak zein paisaia naturalak biltzen dituen ibilbide erdi dokumental erdi poetiko baten bidez. Errezitazio poetikoa eta performancea floraren behaketarekin, adituen elkarrizketekin eta lekuaren ikuspegi panoramikoekin batzen dira. Xehetasunez behatzen dira Santiniketanen nortasunaren bereizgarri diren muralak eta eskultura publikoak, eta komunitatearen egunerokoan erabat presente dauden gailu digitalak eta haien pantailak ere agertzen dira aldizka.

Tagoreren ikuskera nonahi sumatzen da gaur egungo Santiniketaneke bizitzan. Filma 1896ko poema batekin hasten da, non poetak galde egiten dien bere etorkizuneko irakurleei (“hemendik ehun urtera”) udaberriaren iritsierari buruz eta, iragarriz edo, etorkizuneko belaunaldiekin hitzaren bidez konektatzeko irrika ematen du aditzera, baita bere garaiko eta etorkizuneko klimaren eta biodibertsitatearen arteko lotura taxutzen ere. Tagoreren begirada ekologiko sakona funtsezkoa izan zen Visva Bharati eskolaren sorreran; bertan bat egiten dute arteak eta artisautzak, lurrari estu lotuta. Inguruetako lurzoru aberatsak ekarriz eta askotariko landare-espezieak barneratuz lurra indarberritzeko poetak egindako ahaleginari esker, lur-eremu emankor bihurtu zen Santiniketan. Hala, prozesu horretan berebiziko garrantzia du lurzoruaren goiko geruzak, bertan sortzen baitira hosto, belar, fruta eta animalia-hondakinen deskonposizioa eta transformazioa; geruza horri O horizontea deitzen diote agronomoek, eta hortik hartu du filmak izena. The

Otolith Groupentzat gune hauskor eta dinamiko hori funtsezko elementua da pentsamendu garaikidearen garapenean, norabide ekologiko eta kosmopolitikoaren baitan.

Erakusketako gelaurrean fotomuntaia batzuk daude ikusgai: *Santiniketaneko ikasketak* (*Santiniketan Studies*). Horietan, Visva Bharatiko campuseko zenbait guneren askotariko dimentsioak, garai desberdinen existentzia, eta gertaera historikoen latentzia erakusten dira, emozioz blaitutako leku batean erakutsi ere. Bestetik, Anjalika Sagarren aita zen Vydia Sagar artistaren paper gaineko obren hautaketa bat ere hartzen du erakusketa-aretoak; hari eskainia dago, hain zuzen ere, instalazioa. Lan horiek Visva Bharatik India moderno eta garaikideko artisten belaunaldi batean baino gehiagotan izandako eragina azaltzen dute.

The Otolith Group. Biografia

The Otolith Group 2002an sortu zuten Anjalika Sagarrek (Londres, 1968) eta Kodwo Eshunek (Londres, 1966). Harrezkero, filmak, soinu-zuko obrak, instalazioak eta erakusketak egin dituzte, baita testuak ere, pentsamendu deskolonialari eta adiskidetasun transkulturalari buruzko ikerlan zabal batean oinarrituta. Gorputzari orientatzea, orekatzea eta azelerazioa eta jarrera igartzea ahalbidetzen dion egitura da barne-belarria, eta bertan sortzen dira animalia ornodunen kasuan otolitoak, kare-koskor txiki batzuk. Horietatik hartu du izena taldeak. Zientzia fikzioaren, teoria kritikoaren eta autobiografia hipotetikoaren ikuspegiak elkartuz, askotariko dimentsioetan aldi berean jarduteko asmoa ere eman izan dute aditzera artistek.

The Otolith Groupen lanak mugimendudun irudia, soinua, performancea, instalazioa eta komisariotza hartzen ditu barnean; nazioarteko erakusketa ugaritan parte hartu du taldeak, bakarkakoetan nahiz kolektiboetan, erreferentziazko beste talde artistiko batzuekin batera. Bere obra erakutsi duten erakundeen artean aipatzekoak dira: Van Abbemuseum, Eindhoven; Institute for Contemporary Art, Virginia Commonwealth University, Richmond; Southern Alberta Art Gallery, Lethbridge; The Irish Museum of Modern Art, Dublin; Whitworth Art Gallery, Manchester; eta Sharjah Art Foundation, Sharjah. Taldearen beste erakusketa indibidual batzuk ikusgai izan dira, besteak beste, honako lekuotan: Argos Centre for Art and Media, Brusela (2007); The Showroom and Gasworks, Londres (2009); MACBA, Bartzelona (2011) eta MAXXI, Erroma (2011-12). The Otolith Groupen komisariotza-proiektu garrantzitsuak ere gauzatu ditu, esaterako, *The Ghosts of Songs: A Retrospective of the Black Audio Film Collective 1982-1998*, FACT, Liverpool, eta Arnolfini, Bristol (2007); eta *Harun Farocki: 22 Films*, Tate Modern, Londres (2009).

Hezkuntza-jarduerak:

Artistekin solasean (ekainak 23)

Museoko Film & Video aretoan aurkeztutako erakusketaren inaugurazioarekin bat etorritik, Anjalika Sagar eta Kodwo Eshun *O Horizontea* proiektuari buruz arituko dira hizketan Guggenheim Bilbao Museoko Manuel Cirauqui arte-arduradunarekin, taldeak azken hamarkadetan izan duen jarduna hizpide hartuta. Ondoren, solasaldi bat izango da publikoarekin.

GGUGGENHEIM BILBAO

Film & Video (103 aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako gune bat da, eta Guggenheim Museoen bildumetako obrak aurkezten ditu, baita nazioarteko beste erakunde batzuetakoak ere. 2014an ireki zenetik, Film & Video aretoak hainbat artista bereziren sorkuntza-lanak erakutsi ditu, besteak beste, hauenak: Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, William Kentridge, Alex Reynolds, Sharon Lockhart eta Monira Al Qadiri.

Azaleko irudia

The Otolith Group. O Horizontea

O Horizontea (O Horizon), 2018 (fotograma)

90 minutuko bideoa

Artisten eskaintza

©The Otolith Group

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa
Marketin eta Komunikazio Arloa
Tel: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prensa irudiak:

The Otolith Group. O Horizontea

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

The Otolith Group. O Horizontea

O Horizontea (O Horizon) 2018, (fotograma).

90 minutuko bideoa

Artisten eskaintza

©The Otolith Group



The Otolith Group. O Horizontea

O Horizontea (O Horizon) 2018, (fotograma).

90 minutuko bideoa

Artisten eskaintza

©The Otolith Group



The Otolith Group. O Horizontea

O Horizontea (O Horizon) 2018, (fotograma).

90 minutuko bideoa

Artisten eskaintza

©The Otolith Group



The Otolith Group. O Horizontea

Santiniketaneke ikasketak (Gu Baino mende bat lehenago II):

Tapovaneko ikasketa-zirkulua, 2018

Collage digitala Somerset Museum Rag paper gainean

Artisten eskaintza

©The Otolith Group



The Otolith Group. O Horizontea

Vydia Sagar, Titulorik gabea, 1985-92

Artisten eskaintza

©The Otolith Group

